

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

663/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean aurreikusitako behin betiko baja sustatuaren inguruko berraztertze errekurtsoa ezetsi zeneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko uztailaren 27ko ebazpenaren kontra 16249074B nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —663/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 23an

Udal legelaria

RICARDO SOLAUN GONZÁLEZ